

## JUSTIFIKAZIOA ETA ESKERRONAK

Argitalpen honekin ez nuen inor doktrinatuta nahi, "Garapen Psikomotorra" ikasgaiaren zer egin behar den esanez, edo eduki hauek izan behar dutela ikasgai honetan eman behar liratekeenak. Argitalpen honek nire ikuspegia adierazten du, besterik gabe.

Hemen agertzen diren gaiak ikasgai honetan pasa ditudan orduak eta esfortzuak adierazten dute, baina ez dago bilduta nire esfortzua bakarrik, nire inguruan dauden beste irakasle batzuen esfortzuak bildu dira hemen ere. Hala, eman behar dizkiot eskerrak Ana Macazagari gure arteko elkarlana bultzatzeagatik, horrenbeste irakasteagatik eta lan honetan, bereziki, ikaskuntza eta garapen motorrari buruzko "apunte zahar" horientatik (zuk esaten duzun bezala); Angela Vaquerori, gaitasun motoreari buruzko gaiaren bere apuntean oinarritu bainaiz; Luixmari Zulaikari, ume jaio berrien garapena lantzeagatik; Alfonso Garcia Mongeri eta Juanjo Sistiagari, jolasei buruzko ekarpenagatik; Miguel Angel Domínguez Sevillanori, psikomotrizitate arloan ni baino gehiago jakiteagatik, bere ekarpena ezinbestekoa izan baita psikomotrizitatea ulertzeko; eta bukatzeko, Beñat Amenabarri, Iker Rosi eta hainbat lankideei, bere solasaldiengatik.

Baina gauza guztien gainetik, nire esker onak ikasgai honetan izan ditudan ikasleentzat dira, beren gogoetak ezinbestekoak izan baitira ikasteko eta hazteko eta haiek hainbat arrazoirengatik apunte hauek publikatzera animatu nautelako. Batzuk, euskaraz dauden argitalpen kopuru txikiarengatik, beti dabilta kezuka liburutegietan euskaraz ezer ez dagoela esanez; beste batzuek askotan esan didatelako nire apunteak liburutegian aurkitu duten materialaren laburpena ona direla, edo ordenatuagoa agertzen direla, edo ...; beste batzuek esan didatelako nire apunteen idazteko modua argia eta sinplea dela, erraz ulertzekoa. Mila esker Itsasneri, Leireri, Gorkari, Aitorri, Iratiri, Xelari, Ainarari, Josebari, Amaiari, Iratxeri, Nahiari, Estiri, Ekaitzi; Inesi, Olatzi ... mila esker denei, horrenbeste zarete!!

Nire azken arrazoia pertsonala izan da, apunte hauei irtenbidea emateko, pena ematen baitit euskaratuta dagoen material hau guztia kutxa ziztrin baten barruan ahaztea, (hautsa jantziz) ikasgai hau utzi behar dudanean. Agian beste inor ez da animatuko bide honi jarraitzen, eta lan hau guztia alferrik egindako lana izango da, baina, hala ere, azken esfortzuak merezi duela uste dut. Egia esan behar badut, ez dut uste betiko ari naizela agur esaten eskolako txikienei, gauza on asko ekarri baitituzte nire bizitzara.

Bukatzeko, eskerrak eman behar dizkiot Argantzungo Haur Eskolari: bere irakasleei, horren abegi ona egiteagatik, bi aldiz pentsatu gabe ikastolako ateak ireki dizkidatelako; umeen gurasoei eta, nola ez, umei, lana errazteagatik eta lan honi zentzua emateagatik, umerik

gabe lan hau guztia funtsik gabea baita; irakasle-praktiketan han aritu den ikasle ohi bati, Irati Lotinari aspaldian buruan nuen ideia bat berpizten laguntzeagatik; eta argazkilarari moduan ibili direnei, lan ezkutua egiteagatik.

Testu hau hobeto egin daiteke, zabaldu daiteke, landu daiteke, hobetu daiteke, eta osa daiteke nire ikasleek egin dituzten lan zoragarriekin, baina beste batean izango da. Egia esan, zuek, Garapen Psikomotorreko ikasleek salbatu nauzue, zuek egin duzue nire lana askoz errazagoa, zuek lortu duzue ikasgai honen irakaslea izatea plazer bihurtzea. Mila esker bene-benetan.

Mariate

Esker bereziak lan honetan parte hartu duten ume guztiei. Honako hauek dira haien izenak: Jokin Campo, Eukene Juez, June Velasco, Olivia Vegas, Oier Muela, Oier Bañuelos, Lailane Deagra, Aitziber Zelaya, Aintzine Ramos, Alessia Cabo, Iñigo Cuadrado, Mara Martinez, Paula Sagredo, Aritz Isazelaia, Oier Salcedo, Iria Mendez, Pablo Alonso, Aimar Duque, Urtzi Crespo, Ibai Fernández, Aitor Fernández, Asier Fernández, Ekain Angulo, Claudia Santander, Emerik Ortiz de Urbina, Unax Isazelaia, Diego Arnaiz, Pablo Antía.

Eta nola ez, esker *aunitz* irakasleei, Ixiar Mateos Arruabarrenari, Saioa Urizar Oleagari, Susana Cabello Perezi eta Ekaitz Lotina Aranari, eta argazkilariei, Ekaitz Lotinari, Irati Lotinari, Iñaki Insaustiri...



2. argazkia: Hemen gaude! .... Argantzungo ikastolan!